



Lapurdum

Euskal ikerketen aldizkaria | Revue d'études basques |
Revista de estudios vascos | Basque studies review

13 | 2009
Numéro XIII

Aldaerak *Clovis* pastoralean

Ane Loidi



Édition électronique

URL : <http://journals.openedition.org/lapurdum/2118>

DOI : 10.4000/lapurdum.2118

ISSN : 1965-0655

Éditeur

IKER

Édition imprimée

Date de publication : 1 février 2009

Pagination : 245-260

ISBN : 978-2-86781-409-X

ISSN : 1273-3830

Référence électronique

Ane Loidi, « Aldaerak *Clovis* pastoralean », *Lapurdum* [Linean], 13 | 2009, Sarean emana---an 15 avril 2013, kontsultatu 20 avril 2019. URL : <http://journals.openedition.org/lapurdum/2118> ; DOI : 10.4000/lapurdum.2118

Aldaerak Clovis pastoralean¹

Ane LOIDI
Euskaltzaindiaren Hiztegia

Laburpena:

Lau dira gaur egun ezagutzen ditugun Clovis pastoralearen eskuizkribu nagusiak. Horietarik bi (Bordeleko Udal Liburutegikoa eta Mauleko bilduma pribatu batean gordetzen dena) bertsio beraren aldaera dira eta beste biak (Donostian Julio Urkixo bilduman dagoena eta Baionako Euskal Erakustokiko liburutegiko bat) bertsio ezberdin banaren erakusle dira. Lehenengo aipatutako eskuizkribu biek, gainera, kopia bana dute Pariseko Liburutegi Nazionalean eta Baionako Euskal Erakustokiaren liburutegian hurrenez hurren; sei eskuizkribu, beraz, guztira. Lan honetan, gehienbat, bertsio berean oinarritzen diren eskuizkribu bien arteko aldaerak aztertuko ditugu. Itxura guztien arabera gaur ezagutzen ez dugun jatorrizko testu baten kopia eta moldaketa diren aldaera biak zertan berdintzen diren eta zertan ezberdintzen azaltzen saiatuko gara.

Abstract:

Up till now, only four main manuscripts of the pastoral Clovis are known to exist. Two of them seem to be variants of the same version; one is in the Bourdeaux Town Library, and the other one is in a private collection in Maule. The other two, on the other hand, seem to be samples of two different versions; one is in the Julio Urkixo's collection in San Sebastian, and the other one is in the Basque Museum of Bayonne. In addition to these, there are two more copies of the former ones; one of them in the National Library in Paris, and the other one in the Basque Museum of Bayonne. Therefore, there are six manuscripts in all.

Our aim in this essay is to work on the differences and similarities of the two different manuscripts of the same version. They seem to have been copied and adapted from an original text that is unknown for us nowadays.

Gako hitzak: XVIII-XIX. mendeak, herri-antzerkia, pastorala, Clovis, aldaerak, zuberera

Keywords: 18th-19th Century, popular theatre, pastoral, Clovis, variations, Basque souletine dialect

XVIII-XIX. mendeetako Zuberoako pastoraletan argitaraturik eta eskuragarri daudenak asko ez izaki, orain arte gehiegi landu ez den gaia da sujet bereko eskuizkribuen artean dauden aldaerena. A. Leonen *Konstantinoplako Helena*-ri buruzko lana (1909) eta J. Saroihandyren *Roland* lana (1927)

1. Mila esker Iker ikerketa guneari Baionako Mintegian lan hau aurkezteko aukera emateagatik.

aitzindari izan ziren aldaeren berri ematen.² Batez ere lehenengoaren lanean, ezagutzen ziren eskuizkribu guztien berri ematen da eta batzuetan pasarte beraren hainbat aldaera kopiatzen dira. *Charlemagne* eta *Sainta Catherina* argitaratu dira, hurrenez hurren Oyarçabal (1991) eta Loidiren (1996) lanetan, bakoitzetik ezagutzen diren eskuizkribu bien aldaeren berri emanaz. Eskuizkribu ugari dituena da *Jean de Paris* pastoralara ere; argitaratzeke dagoen I. Mozosen tesi lanean egin zen aldaera horien lehenengo azterketa eta oraintsu Urkizuk (2007) ere pastoral horren bi eskuizkribu-tako aldaerak jasotzen ditu bere transkripzioan.

Eskuizkribu asko dituena izaki, aldaeren azterketarako aukera handiak ematen dituen pastoralara da Clovisena ere. Erkatzen diren eskuizkribuen arabera mota bateko edo besteko azterketak egin litezke aldaerekin: hizkuntzazkoak, literaturakoak nahiz estiloari dagozkionak. Horretarako eskuizkribuen edizio egokia egitea beharrezko iruditzen zaigu eta lan horretan ari gara azkenaldian. Bertsio beraren aldaera diren bi eskuizkriburen erkaketak erakusten dituen aldaerak hona ekartzen saiatuko gara oraingoan.

1. Eskuizkribuen aurkezpena

Gaur egun ezagutzen ditugun trajeria zaharren artean sei dira *Clovis* sujeta duten XVIII. eta XIX. mendeko eskuizkribuak.³ Aurreko lan batean (Loidi 2008b) eman genuen gordetzen diren eskuizkribu guztien deskripzioa eta aipuz baino ezagutzen ez ditugunen berria. Horiek guztiek elkarren artean duten erlazioa argitzen ere saiatu ginen. Ez dugu hemen lan horretan esandako guztia errepikatuko; labur aipatuko dugu zein diren eta bakoitza non gordetzen den:

- A:** Guztietan zaharrena da eta Bordeleko Udal Liburutegian gordetzen da, eskuizkribuen sailean, 1695-III izendapenarekin. Guztira bi zutabetara idatzitako 51 orri dira, orrika zenbakituak, baina horietan lehenengo 16 orriak bakarrik dira *Clovis* pastoralari dagozkionak (567 ahapaldi, lehen eta azken peredikurik eta sataneriarik gabe) eta gainerakoek *San Julian* pastoralara jasotzen dute. Ex libris-ean aipatzen denez, 1770eko urtarrean Sarrikotapean egin zen emanaldian erabilitako eskuizkribua da hau.⁴
- B:** Gaur, Mauleko Peyrot anderearen etxean gordetzen da, beste dozena bat eskuizkriburekin batera, Hérelleren katalogoan (1928, 125) Larrieuren bildumakotzat aipatzen den eskuizkribu hau. Zenbakitu gabeko 168 orri dira, eta orrialde bakoitzak zutabe bakarrean idatzitako lau-bost ahapaldi ditu. 1405 ahapaldi zenbatu ditugu testu nagusian, 80 lehen peredikuan eta 21 ditu azken predikuak; beraz, guztira 1506 ahapaldi, marraz ezabatuta daudenak barne. Idatzitako azkenaurreko orrialdean, 1799ko data dakar, emanaldian parte hartu zuten aktoreen izenekin batera.
- C:** Datarik ez daraman arren badirudi XVIII. mendekoa dela eskuizkribu hau ere, hala aipatzen du behintzat Hérellek (1928, 128).⁵ Baionako Euskal Erakustokiko liburutegiko Campan-

2. Benetan argitaratzen lehenengo izan zen Vinsonen *Saint Julien d'Antioche* aipatu ez badugu ez da ahanzturaz izan, eskuizkribu bakarreko pastoralara izanik aldaeren erkaketan gorabeherarik ez duelako baino.

3. Zazpigarren bat bada Baionako Udal Liburutegian. Eskuizkribu horrek XIX. mendearen hondarrean Léopold Irigaray Hérelleren kolaboratzaileak egindako Bordeleko eskuizkribuaren frantsesezko itzulpena dakar.


4. Urkizuk (2007) ortografia gaurkotuan eman du eskuizkribu honen transkripzioa. Liburu berean XVIII. mendeko beste bederati pastoral ere argitaratu ditu.

5. Eskuizkribuaren data antzemateko bide hoberik ez dugunez, saiatu gara paperaren ur markak irakurtzen, baina, oraingoz, ez dugu hortik argibiderik atera.

Latsague bilduman gordetzen da 20 zenbakiarekin. 19 orri ditu guztira (1etik 19ra orrika zenbakiuak), eta tinta gorritz idatzita daude pertsonaien izenak eta testu oharrak. Guztira 780 ahapaldi ditu: 77 lehen peredikua, 692 trajeriak eta 11 osorik ez dagoen azken peredikua.

- D:** Donostiako Koldo Mitxelena liburutegiko Julio Urkixo bilduman gordetzen da eta 1858ko data darama (J.U. 121209799). Zenbakitutako 64 orrialdeetan eta han hemenka tartekatutako beste hainbat orritxotan jasotzen da testua: 75 ahapaldi ditu lehen peredikua, 1419 testu nagusiak eta beste 25 azken peredikua.
- F:** Parisiko Biblioteka Nazionalen *Celt et Basque* funtsean gordetzen da ale hau 133 zenbakiarekin. Léopold Irigarayk 1899-1900 urteetan Hérellerentzat egindako kopia da, bertan aipatzen denez, V. Stempfek Bordeleko eskuizkribuari egindako kopia bat baliatuz egindakoa.⁶ Aldaerak aldaera, A izena eman diogun Bordeleko eskuizkribuaren kopia zehatza da.
- H:** Eskuizkribu hau Clement d'Andurainen bildumakoa zen, eta gaur egun Baionako Euskal Erakustokiaren Liburutegian gordetzen da 29 zenbakiarekin. Bertan irakur daitekeen data bakarra 1799koa da; hain zuzen ere, data hori daraman B eskuizkribuaren XIX. mendeko kopia baita honako hau. Akats edo gaizki ulertutako hitzen batzuk gorabehera, jatorrizkoaren berdin-berdina da kopia hau.

2. Bertsioak eta aldaerak



Ezagutzen ditugun eskuizkribuen gutxi gorabeherako aurkezpena eginik, eta sakonago aztertuko dugun A eta B eskuizkribuen arteko aldaeretara igaro aurretik, aipatutako eskuizkribuen artean dauden erlazioak eta horietatik sortzen diren aldaera mota ezberdinak aipatu nahiko genituzke. Horretarako, gure aurreko lanean proposatu genuen eskema bera ekarriko dugu hona:⁷

6. Loidi 2008b-n E (Stempf) eta G (Héguiaphal) izena eman genien eskuizkribuak ez ditugu hemen jasoko, ez baitakigu, guk behintzat, gaur egun non diren.

7. Ikusten denez, goian aipatutakoez gain, gaur ezagutzen ez ditugun Stempf eta Héguiaphalen aleak ere jasotzen ditu eskemak. Hor azaltzen da Baionako Udal Liburutegian (51 zenbakiarekin) dagoen bi orrialdeko eskuizkribua ere, D alearen pertsonaien zerrenda eta hura jokatzeko oharrak jasotzen dituena.

Clovis pastoralaren hiru bertsio nagusi ditugu, beraz: C eta D eskuizkribuetako biak alde batetik, eta A eta Bren jatorri litzatekeen testuarena bestetik⁸ Bertsio ezberdinez gain A eta B eskuizkribuetatik egindako kopiak ditugu: zuzenean Btik egindako H kopia eta, kopian bertan aipatzen denez, gaur ezagutzen ez dugun E aletik egindako F.

3. Aldaeren azterketa: hiru aukera

Jatorri eta erlazio ezberdinak ikusirik, iruditzen zaigu aldaerak aztertzerakoan gutxienez hiru erkaketa mota ezberdin egin litezkeela *Clovis* pastoralaren eskuizkribuen artean:

a) X, C eta D istorio beraren bertsio ezberdinak dira; aldaerak ez dira hizkuntza edo estiloari soilik dagozkionak, hori baino sakonagoak dira. Suje berari buruzko hiru kontaktak ezberdin dira; beraz, aldaerak aztertzerakoan pasarteka erkatu beharko dira testuak, ez hitzez-hitz edo ahapaldika. Istorioak eta pasartekak zertan daozten bat eta zertan ezberdintzen diren erkatu beharko da.

b) Guztiz bestelakoa da Fk eta Hk jatorrizko A eta Brekin hurrenez hurren duten erlazioa. Bi kopia horiek, eta batez ere bigarrena, jatorrizkoaren oso berdina dira. L. Irigarayk egindako kopia (F) Hérellerentzat zen, beraz, Zuberoako teatroaren ikertzaile handiari Bordeleko testua eskuragarriago egitea zuen helburu, eta ez emanaldi berri baterako testua moldatzea eta idaztea.⁹ Kopia horrek, beraz, definizioz izan behar du leiala eta jatorrizkoaren berdina. Hiri dagokionez, berriz, ez dakigu benetan zer helburu zuen, baina horrek ere emanaldi berri baterako egina baino bestelako helburuekin egina dirudi. Ez dakigu nor kopiatu zuen, baina iruditzen zaigu izan litekeela Cl. D'Andurainek berak norbaiti kopiatzeko eskatua (ezagutuko zituen, ziur aski, Larriuren bildumako eskuizkribuak) edota, zergatik ez, Fr. Michelek, urte batzuk lehenago, B eskuizkribua esku artean izan zuenean egin edo eginarazitako kopia.¹⁰ Batak, besteak, zein hirugarren batek egina izan, helburua jatorrizkoaren kopia zehatza egitea zen eta, hala, jatorrizkoan marraz ezabaturik dauden ahapaldiak ere kopiatu eta berdin-berdin marraz ezabatu dira. Bi kopia horietan, beraz, aldaeren azterketa jatorrizkoarekiko hitzez-hitzeko eta ahapaldiz-ahapaldiko erkaketan oinarritzen da. Nahita egindako aldaketa eta moldaketak barik, oharkabean-edo egindako aldaerak aurkituko ditugu. Gure oraingo lan honen funtsa hirugarren sailean aipatuko ditugun aldaeren azterketa da, eta beraz, ez ditugu F eta H kopietako aldaerak gehiegi aztertu. Dena den, badirudi Hko aldaera gehienak hutsak edota irakurketa okerrekin sortuak direla. L. Irigarayren kopian, berriz, horiez

8. Loidi 2008b-n ere aipatu genuen ez dela ezinezkoa B eskuizkribuaren jatorrizkoa A izatea eta ezberdin duten guztia bigarren honek moldatua eta gehitua izatea, baina, besteak beste, Bren bigarren zati guztia ulertzeko egokiago iruditzen zaigu hemen ere X izendatu dugun jatorrizko testu horri eustea. Beraz, erkaketak egiterakoan eta aldaerak aipatzerakoan lan honetan eskuizkribu biak zuzenean beste hirugarren batetik kopiatuak balira bezala jokatuko dugu.

9. Goian ikusi dugunez testu horren itzulpena ere egin zuen Irigarayk Hérellerentzat.

10. Loidi 2008b lanean azaldu genuen Fr. Michelen eta B eskuizkribuaren arteko erlazioa. Gure ustez eskuizkribu hori erabili zuen frantziar ikertzaileak *Le Pays Basque* liburuan (66-75) eman zuen *Clovis*en laburpena eta transkripzioa egiteko eta A. Oihenarten poemei egindako edizioaren hitzaurrean (LXIX. orrialdeko oinoharra), bere eskuizkribuan azaltzen diren pertsonaia eta aktoreen zerrenda kopiatu zuenean.

11. Hutsei eta irakurketa okerrekin dagokien kopiatu honetan kontuan izan behar da, gainera, ez dela zuzenean Atik egina, Stempfen kopia baliatuaz egina baizik; beraz, hutsak bikoiztuak izan litezke eta horien azterketa zaildu egiten da, ez baitugu askotan ziur jakiterik izango irakurketa okerra Stempfungandik jasoa den ala Irigarayk berak egina.

gain,¹¹ bada hizkuntzazko aldaerarik ere.¹²

c) Hirugarren modu batean aztertu behar dira A eta B eskuizkribuen artean dauden aldaerak. Eskuizkribu bi horiek beste hirugarren testu batetik egindako kopiak dira, baina ez dira goian aipatu ditugun F eta H kopiak bezala egindakoak. Bi horiek *Clovis* pastoralaren emanaldi banatarako prestatutako testuak dira; batean zein bestean kopiaren egilea ez da kopiatzaile huts, testuaren moldatzaile eta berridazle ere bada aldi berean. Kopia diren aldetik, beraz, badituzte hutsak eta irakurketa okerrekek sortutako aldaerak ere, baina kopiatzaile eta moldatzaileak nahita egindako aldaerak dira nagusi. Jatorrizko testua ezagutzen ez dugunez ezin jakin dezakegu kasu jakin bakoitzean zein den jatorrizkotik bereizten dena eta zein jatorrizkoari leial eutsi diona.

Hiru erkaketa molde horietan, A eta B eskuizkribuen artean dauden aldaeren azterketa aukeratu dugu lan honetarako.

4. A eta B eskuizkribuen arteko aldaerak

Goian egin ditugun deskripzio laburrak aski dira bi eskuizkribu hauek berdin-berdinak ez direla ohartzeko: zaharrenak 567 ahapaldi bakarrik ditu eta berrienak, berriz, 1506; lehenengoak lehen eta azken peredikuak falta ditu eta sataneriari ere ez du eta bigarrenak, berriz, bai. Ez-berdinak izanik ere, ordea, badituzte hainbat ahapaldi berdin-berdinak. A eskuizkribuaren kontaketa B eskuizkribuaren lehenengo zatiarekin bukatzen da, gutxi gorabehera bigarren horren 570. ahapaldian; hortik aurrera Bn kontatzen dena, beraz, ez du jasotzen Ak (beste 830 ahapaldi inguru). Clovisen bataioarekin eta liz lorearen inguruko pasartearekin bukatzen da Bordeleko eskuizkribuaren kontaketa. Pasarte horretara bitartean, 400 ahapaldi inguru dira bietan berdinak, eta bakoitzak beste 160-170 ahapaldi ezberdin ditu gainera. Biek berdin dituzten ahapaldi horietan aurkitu ditugun aldaerak erakutsi nahi ditugu batez ere lan honetan, ez guztiak banan-banan baina bai orokorrean eta multzoka antolatuturik.¹³

Ahapaldi “berdinak” aipatzen ditugunean jatorriz berdinak diren ahapaldiak aipatu nahi ditugu, alegia, aldaerak gorabehera testu bera dutenak. Ikus ditzagun hainbat adibide:

Batzuetan berdin-berdinak dira, A 63 eta B 102 diren bezala:

A 63 Bena ez bestela,
eniroçu eguin seculla,
ceren nahy beiniz isseiatu
arimaren salvatcera.

B 102 Bena ez bestela,
eniroçu eguin secula,
ceren nahy beiniz isseyatu
arimaren salvatcera.

12. Aztergai bikaina iruditzen zaigu A eta F eskuizkribuen artean dauden aldaeren azterketa, baina, oraingoan beste sail bati helduko dugunez, goian aipatu dugunaren erakusgarri diren adibide batzuk bakarrik ekarriko ditugu hona: jatorrizkoan asimilazioarekin azaltzen diren *triatin*, *emaitin* eta *jun*, *triatian*, *emaitian* eta *juan* dira Fn; palatalizaziorik gabeko *esparantza*, *bakhoitz*, *egotzi* eta *hanitz* edo *gaizkia*, *adiskidia* eta *gaiztua* palatalizazioidun *esparantxa*, *bakhoitz*, *egoitxi* eta *hanitz* edo *gaixkia*, *adixkia* eta *gaixtua* dira; ablatiboko *-ti* eta soziatiboko *-ki* *-tik* eta *-kin* dira kopia berrienean; era berean zaharrenean *baizi* dena *baizik* da Irigarayren kopian; *nure*, *nureki* eta *ore ene*, *eneki* eta *hire* bihurtzen dira; aditz formetan ere badira aldaerak, luzeegi joko lukeenez, hona ekarriko ez ditugun arren.

13. Ahapaldietako testuan dauden aldaerez gain didaskalia edo testu oharretan ere badira ezberdintasunak eskuizkribu bien artean. Beste baterako utziko dugu horien azterketa, baina, oro har, esan liteke osoagoak eta zehatzagoak direla B eskuizkribukoak. Pertsonaien izenen erkaketa ere ez dugu hemen egingo. Pertsonaia nagusien izenak berdinak dira eskuizkribu bietan, baina bigarren mailako hainbat izen ezberdin azaltzen dira.

Beste batzuetan hitzen bat edo bitan bereizten dira, edo hitz gehiagotan bereizi arren egituraz berdinak dira:

A 365 Sira, ez haboro pacentcia,
ditçagun *ataca* mementian;
asse nahy nundukeçu
coky haien odollian.

A 352 Ouste baduçu *deus ary dela*,
othoy eçaçu *ny gatiq Gincó houra*,
eztit deliveratcen
orano nourriaren *uztera*.

B 403 Sira, ez haboro pacentcia,
ditçagun *atçaman* mementian;
asse nahy nundukeçu
coqui hayen odolian.

B 389 Ouste baduçu *hobe dela*,
othoy eçaçu *çoure Gincó maitia*,
eztit deliberatcen *orano*
nourriaren *uztia*.

Jarraian kopiatu ditugun A 353 eta B 390 ere berdintzat hartzen ditugu, ahapaldiaren bigarren zatia ezberdina izanik ere, aurretik eta ondoren datorrena berdina dutelako. Berdin duten zatia jatorrizko ahapaldi beretik kopiatua behar dute biek.

A 353 Adio deiçut erraiten,
ene espousa maitia,
coraga cite eta utcy
duçun creinta gucia.

B 390 Adio deiçut erraiten,
ene espousa maitia,
luce içanen citaçu
berriz çoure bessarcatcia.

4.1. Pasarte edo zati handi bat hartzen duten aldaerak

Berdin dituzten ahapaldien aldaerak aztertu aurretik ezberdin dutena gutxi gorabehera azaltzen saiatuko gara: badirudi eskuizkribuak hasieran eta bukaeran bereizten direla gehien, beste guztia berdintsuago doala. Esaterako, bietan berdina den lehenengo ahapaldia Ako 11.a eta Bko 39.a dira; ahapaldi hori iritsi arte Clovisen eta Aurelianen arteko elkarrizketa ezberdin doa. Hasiera hori gairiditurik, Aurelianek Clotildarekin hitz egitea lortzen duen arteko guztian badira gorabeherak; bina-hiruna ahapaldi berdinak aurkitzen baditugu ere, tarteka ezberdinak diren beste sei-zortzi ahapaldiko multzoak ditugu. Clovisek Aurelian Borgoinara bidali duenean Aurelianek hara nola iritsi azertuaz izan duen bakarrikzeta dator eskuizkribu bietan (A 18-29 eta B 47-57 ahapaldietan). Bakarrikzeta horretan, Clovisen mezulariak, Gundebant ohartu gabe Clotildarekin hitz egiteko zer egin behar duen aztertzen du. Aurelianek badaki bere gizon guztiekin joaten bada Gundebant ohartuko dela eta, txarrera harturik, Clotilda bera hil ere egin dezakeela, haren aita eta familiarekin aurrez egin zuen bezala. Beraz, jakinik Clotilda egunero meza entzutera joaten dela eta ondoren behartsuei laguntza ematen diela, pobre jantzian eta bakarrik joatea erabakitzen du. Kontaketa horretan, baina, ahapaldi guztiak ez dira berdinak. A 18 / B 48 eta A 27 / B 57 dira ahapaldi berdinarak eta A 21-22 / B 53rekin eta A 26 / B 55-56rekin oso antzekoak dira. Beraz, pasarte honek bi ahapaldi bakarrik ditu berdinarak eta beste hiru antzekoak. Oso zail da jakiten zati honetan zein izan den jatorrizkotik bereizi den moldatzailea eta zein hari leialago izan zaiona. Ez dira ahapaldi bat edo bi gehitu edo kendu direnak, tarteko zortzi ahapaldietan zehar ezberdin doa kontaketa.

Goian aipatu dugun pasartearen ondoren Polis behartsuarena eta Aurelianek eta behartsuak elkarrekin duten elkarrizketarena ere ezberdinak dira. An ez bezala, Bn behartsuaren bakarrikzeta dator lehenengo (B 59-65), dela ikusleei, dela oholza gainean leudekeen pertsonaia ikusezin batzuei amoina eskatuaz... Pasarte horretan hasi eta Aurelianek Clotildarekin duen lehenengo elkarrizketarainoko bideak elkarren inguruan baina bereiz doaz eskuizkribu bietan, harik eta A 53

/ B 91 ahapaldietan berriz bat egiten duten arte. Hortik aurrera bateratsu doaz ehun ahapalditik gorako pasarte luze batean, tarteka Ak ahapaldiren bat gehiago duela.

Horietan guztietan oso zail da jakiten zein den bietan berritzailea. Dena den, Clovis kristauaren eta Jule turkaren arteko borrokaldiaren emaitza da kontaketaren harian gorabehera handiena dakarren zati ezberdina, aurreko lanean ere aipatu genuenez. Eskuizkribu bietan berdin datozen ahapaldietan, Clovisek Juleri konbertitzeko aukera ematen dio, baina A 443 eta B 458tik aurrerakoa ezberdina da:

JULE

A 444 Clovis, çuq placer duçuna
ezpere eguinen dit,
bena behar naiçu,
othoy, utcy biciriq

445 eta çoure exempliary
bertan nuçu jarraikiren,
noure gincouaq kitaturiç
khiristy errendaturen

446 eta çuq manhatiaq oro
gogo hounez citit eguinen,
eta reparationetaco noure
coroua, aldiz, emanen.

JULE

B 458 Ale, debru esquelia,
enuq ossoquy loxatu
oray hiry nahy dat
buria ondoty trencatu.

Batailla; Jule hil.

Pasarte horretan hartu duten bide ezberdinak ahapaldi batzuk beherago ere bide bereziak hartzera daramatza kopiatzaileak:

CLOVIS

A 482 Nestorin, Franciarat
behar diagu phartitu,
habororiq egon gabe
mementouan abiatu.

483 Adio erraiten deriçugu,
Jula, mementian,
eta egon cite bethy,
othoy, çoure hitcian.

JULE

484 Adio, Clovis, adio,
Franciaco erreguia;
bidage houn souhetatcen deiçut
eta bicitce lucia.

485 Desobedienciariq ene aldetiq
secula eztuçu ginen
eta baliman çoureky
gerlariq eztit ukenen.

CLOVIS

B 501 Nestorin, Franciarat
behar diçuçu phartitu,
haboro egon gabe
mementouan abiatu.

Abia eta recontru eguin.

Badirudi, kasu honetan Bko kopiatzailea aldentzen dela jatorrizkotik, baina garbi dago ohartuki hartutako bidea izan dena; 501. ahapaldian, goian hartutako bideari eutsiaz, B eskuizkribuan Clo-

visék ez du Jule agurtzen Frantziara abiatzerakoan.

Besteak beste horrelako pasarteak ikusirik, garbi esan liteke eskuizkribu horiek kopiatu dituztenak ez direla kopiatzaile huts; hainbatetan moldatzaile eta sortzaile dira, eta egindako aldaketa eta moldaketak aurrez antolatutako kontaketa batean gauzatzen dira. Bitxia da alde horretatik ondoren aipatuko dugun pasarteak. B 231-232 ahapaldiek erakusten dute jatorrizko testuak A-k dakarrena edo antzeko zerbait zekarrela bi ahapaldi horien tartean, eta Bko kopiatzaileak zati hori ez kopiatzea erabaki duela. Zati hori kopiatu gabe utzi duenean, ordea, testuak jarraikortasuna falta du eta hutsune hori salatzen du. Bko ahapaldiak bakarrik irakurrita ez da ulertzen zer diren Clotildak gogo onez utziko lituzkeen *beste* gauzak. A eskuizkribuak tartean dakarrena irakurrita ulertzen da zer falta den eta Bk zer ezabatu duen:

A 205 Desiratcen niqueçu hain gogo hounez
Gincouaq pharca liçaçun [bekatiak]
bay etare hil ondouan
bere gloria eman liçaçun.

B 231 Desiratcen niqueçu
Gincouaq pharca liçaçun [bekatiak]
bay eta hil ondouan
bere gloria eman liçaçun.

206 Ez, ez, çoure coroua
eztuçu behar utcy enegatyç,
eztit çoureganiç pretenditcen
halaco satisfamenturicç.

207 Enetaco giten diradianacç
errendaturen deriztaçu
eta bestiacç, aldiz,
oro beguira itçaçu.

208 Eztit, ez, beste reparacioneriq
niç çoury galthatcen,
ez eta secula
bician exigeaturen.

209 Errege handy hary beguitharte
egin behar ezpanu
houracç ere gogo hounez
oro kita niçakeçu.

232 Errege handi hary beguitharte
eguin behar ezpanu
bestiaç ere gogo hounez
oro quita niçaqueçu.

Dirudienez, baina, ez gara gu izan hutsegite horrekin ohartu garen bakarrak; Bko kopiatzailea ere ohartu bide zen, 232. ahapaldia goitik beherako bi marraz ezabaturik baitago eskuizkribuan.

4.2. Ahapaldi barruko aldaerak

Goian aipatu ditugun aldaera guztiak nahita egindakoak izan dira, alegia, kopiatzaileak, bere testua antolatzerakoan, jatorrizkotik bereizi nahi izan du batzuetan eta halaxe egin du. Oraingo sail honetako aldaera guztiak ez dira mota horretakoak. Asko dira hemen ere kopiatzaileak egokiago iritzita egindako aldaketak, baina badira kopiatzerakoan egindako hutsak salatzen dituzten aldaerak ere.

4.2.1 Ohartuki egindako aldaerak

Eskuizkribu bi hauen artean dauden aldaeretan kopiatzaileak nahita egindakoak dira gehienak; denak aipatzen hasita sail hau luzeegi litzateke lan honen neurrirako, eta hortaz, adierazgarrienak bakarrik aipatuko ditugu:

4.2.1.1 Hitzak

Sail honetan aipatuko ditugun gehienak sinonimoak edo sinonimo antzekoak dira. Askotan euskal jatorriko hitza (zentzurik zabalenean) eta maileguzkoa daude aurrez aurre. Behean, lehenengo bi multzoetan banaturik ezarri ditugun adibideetan ikusten denez, ez da beti eskuizkribu bat bestea baino garbizaleagoa; kasu batzuetan A eskuizkribua da mailegua darabilena eta B euskal hitza aukeratzeko duena, baina beste alderako adibideak ere berdin-berdin aurkitzen ditugu. Lehenengo bi multzo horien ondoren emango ditugu gainerako sinonimoak, hizkuntza aldetik bereizketa hori ez dutenak:¹⁴

A 88 *aiutaturen* / B 125 *lagunturen*, A 143 *espousataco* / B 174 *emaztetaco*, A 151 *suspremitu* / B 182 *edireiten*, A 175 *exigeatcen* / B 206 *eguruquiten*, A 386 *ayutia* / B 418 *laguntça*, A 382 *conheritu* / B 415 *çaticatu*.

A 75 *gaitcetaricq* / B 113 *malheurriq*, A 82 *Virgina Maria ezitia* / B 119 *sacratia*, A 88 *lagunturen* / B 125 *favorituren*, A 187 *açamaitiagaty* / B 218 *usurpatciagaty*, A 129 *eguiaz* / B 162 *sinceroquy*, A 332 *elhestatu* / B 370 *consultatu*, A 324 *jauz erazi* / B 364 *trenkatu*.

A 156 *chahaturen* / B 187 *galeraciren*, A 410 *arhincen* / B 437 *alchatcen*, A 64 *regretiq* / B 103 *anxiariq*, A 419 *ajutaturen* / B 443 *sokhorrituren*, A 420 *socorritu* / B 444 *favoritu*, A 470 *secoursaren* / B 492 *sokhorriaren*, A 80 *delibra* / B 117 *libra*, A 53 *dama* / B 91 *princessa*

4.2.1.2 Esaldi osoak

Sail honetan datozen adibide gehienak ezberdin moldatutako esaldiak dira, ahapaldiaren itxura gehiegi aldatu gabe egindako bariazioak eta hainbatetan egitura morfosintaktikoari dagozkionak:

A 12 Har eçaçu diharu,
gente eta arma,
bay eta jouan bertan
printessa haren edireitera.

B 40 Har eçaçu diharu,
gente eta arma,
eta lehen beno lehen jouan
princessa harengana.

A 155 Çouin nahy guisatara
ossoky *galdia* niz,
ecin *ukeiten* ahal dut
batere *ressoursaricq*.

B 186 Çouin nahy *guisetara*
ossoquy niz *galduriq*,
ecin *ukhaiten* ahal dut
batere *resourçariq*.

A 364 Hicq beçala ihourq ere
ezkiticq *secula* naussatu;
ale fripoua, aleta,
sarry behar duçq phacatu.

B 402 Hiq beçala ihourq ere
ezquitiq *secula* naussatu,
bona debria ezpaduq
sarry behar duçq phacatu.

14. Nahita egindako aldaketen sailean sartu baditugu ere, aldaera horiek ez dira beti eta ezinbestean halakoak. Gerta liteke hainbatetan kopiatzaileak gogoan hartu duen esaldia idazterakoan hitz baten ordean haren sinonimo edo pareko bat kopiatzea oharkabean. Horrelakoetan zail da jakiten benetan aldaketa hori kopiatzaileak nahita ala oharkabean egin duen.

A 121 Sira, irous lukeçu Francia
houra erreguina balin baliz;
ez umen diçu mundian
hareq bere parericq.

B 154 Sira, irous luqueçu Francia
houra balin baliz erreguigna;
entçun diçut mundian
haren pareriq eztela.

Hurrengo lerroetan parez pare datozen ahapaldietan alde bateko bakarrak besteko bien laburpen modukoa-edo dirudi:

A 21 Clotilda galeracy liro, aldiz,
 jakin baleça mementian
 eta gu oro ere
 benturaz dembora berian.

B 53 Jaquin baleça, aldiz,
 Clotilda galeracy liroque,
 haren ascaciaq beçala
 bertan hil eracy liroque.

22 Haren aita eta ascaciaçq
 corouaren atçamaiteco
 oro galeracy
 uken çutian guero

B 55 Ençütia dit princessa houra
 ecinago devota dela
 eta meçaren ençütera
 egoun oroz jouaiten dela.

A 26 Entçütia dut dama houra
 egun oroz meça entçütera
 jouaiten dela eta prauber
 amouinaren emaitera,

56 Meça ençun ondouan diala
 prauver amouina emaiten,
 eta eליça murru ondouan
 prauveq eguruqiten.

4.2.2 Oharkabeen egindako aldaerak: hutsak nahiz bestelakoak

Sail honen izenburuan jarri dugunez, oharkabeen egindako aldaketa guztiak ez dira kopiatzailearen hutsak ezinbestean. Aldaera fonetikoak, esaterako, oharkabeen egin ditzake kopiatzaileak, jatorrizkoan forma bat irakurririk ere bere hizkerakoa idazteko joera izan dezakeelako. Ezin esan, hala ere ezinbestean oharkabeen eginak direnik, kopiatzaileak ohartuki ezar baitezake aldaera baten ondoan bereago duena edo zuzenago irizten diona.

4.2.2.1 Forma-aldaketak

Askotariko aldaerak (hala morfologiarekin zerikusia dutenak nola aldaera fonetiko hutsak, adibidez) bildu ditugu izen zabal honen azpian, lan honetan aldaeren tipologia edo azterketa zehaztea baino gehiago interesatzen zaigulako aldaerak ikusaraztea. Gainera, ez da beti erraza, pastoralen eskuizkribuetan, hainbat aldaera grafikoren atzean zer den asmatzea. Esate baterako, badirudi, A eskuizkribuak ez duela beti berdin markatzen *k* hasperenduna, beraz, A 43ko *murru baten cantian* eta B 78ko *murru baten khantian* motako aldaerak ez ditugu hemen aipatuko, An bertan baitatuz *Hire khantiala* (177) eta *Orleanxe khantiala* (466, 473) adibideak ere.¹⁵ Horrekin esan nahi duguna da, es-

15. Loidi 2003-2004ko hitzaurrean, grafiari buruzko atalean, aztertu genuen eskuizkribu berean datorren *San Julian* pastoreleko herskari ahoskabe belarra adierazteko grafia ezberdinen erabilera. Gainerakoan ere B eskuizkribuko grafia Akoa baino sistematikoagoa eta arautuagoa dela esan daiteke. An badira espero genukeen grafiaz bestelakoa duten adibideak: *errege* (124, 145, 157...), *gerla* (139, 144, 156...), *aphurregy* (157) aurki dezakegu *erregue*, *guerla* edo *aphurregy*-ren lekuan, *vengaturen* (164) *venjaturen*-en lekuan, *bacuan* (423) *baquian*-en ordez edo *escele* (328) *eskele* edo *esquele*-ren ordez (baditu *eskele* (49) edo *ezquelia* (433) ere).

kuizkribuetan iritsi zaigun adierazpen grafiko ezberdinak ez duela beti aldaera fonetiko adierazten eta, beraz, benetako aldaera fonetiko baten isla iruditu zaizkigunak bakarrik jaso ditugula hemen. Hona, beraz, sail honetan aurkitu ditugun aldaera nagusiak:

A u / B o: A 65 *çouintan* / B 104 *çointan*, A 155 *çouin* / B 186 *çoin*, A 231 *ounxa* / B 261 *onxa*, A 248 *hounky* / B 286 *honky*, A 252 *hountarçun* / B 289 *hontarçun*, A 276 *gouraintcy* / B 319 *goraincy*, A 289 *souein* / B 326 *soin*, A 342 *couintariq* / B 380 *cointariq*, A 342 *çounbaitecq* / B 380 *çombaitecq*; A 477 *noublia* / B 498 *noblia*.

A o / B u: A 137 *boket* / B 169 *bouquet*, A 177 *nola* / B 208 *noula*, A 346 *corajousky* / B 384 *courayousquy*.

A ü / B u: A 42 *egun* / B 77 *egoun*.¹⁶

A e- / B i-: A 104 *ekoussy*¹⁷ / B 140 *ikhoussy*, A 143 *egorten* / B 174 *igorten*.

A -ld- / B -lth-: A 138 *galdatcera* / B 170 *galthatcera*, A 163 *galdatcia* / B 194 *galthatcia*, A 202 *galda egiten* / B 228 *galthatcen*, A 311 *galdoua* / B 352 *galthoua*, A 500 *galda eçaçu* / B 509 *galtha çaçü* (ik. A 170 / B 201 eta A 386 / B 418 ere).¹⁸

A 185 *egotcy* / B 215 *egoitxy*, A 253 *hanitcez* / B 290 *hanitchez*.¹⁹

A 61 eta 247 *hau* / B 100 eta 285 *haur*.

A 65 *çourekcy* / B 104 *çourequin*; A 41 *baicy* / B 76 *baiciq*; A 84 *haregatiq* / B 121 *haregaty*, A 405 *hilciagatic* / B 433 *hilciagaty*.

A 169 *deriçugu* / B 200 *deiçugu*, A 269 eta 279 *deriçut* / B 306 eta 322 *deiçut*, A 403 *dereiat* eta *betereiat* / B 431 *derat* eta *beiteriat*, A 409 *dereiciet* / B 436 *deritciet*.

A 129, 342 *duia* / B 162, 380 *dia*, A 336 *nunduia* / B 411 *nundia*.

A 299 *eskilimba* / B 342 *esplinga*, A 340 *deligenta* / B 378 *deligentcia*, A 345 *destroua* / B 383 *destrona*, A 363 *aleta* / B 401 *areta*, A 385 *aflegitu* / B 417 *afligitu*, A 402 *geiqui* / B 430 *jaiqui*, A 406 *porocatu* / B 434 *phoroscatu*, A 413 *paillat* / B 438 *paillaz*, A 467, 468, 494 *archebesco* / B 489, 490, 507 *archevisco*, A 533 *firiq* / B 556 *finiq*, A 349 *protector* / B 386 *protetore*, A 372 *balentia* / B 408 *balentria*.

A 115 *premetry* / B 149 *permetry*, A 305 *premetitcen* / B 348 *permetitcen*, A 149 *premissione* / B 180 *permissionia*, A 221 *premissioniareky* / B 244 *permissionarequy*, A 235 *premissionia* / B 264 *permissionia*; A 135 *ususpatriuq*

16. Ez da hori B eskuizkribuko adibide bakarra; *egoun* da agerraldi guztietan azaltzen den aldaera.

17. Ahapaldi zenbaki bakarra jarri dugu eskuizkribu bakoitzarentzat, baina *ek(h)usi* da A eskuizkribuan forma nagusia (*ikusí* bi aldiz aurkitu dugu: *icousiren* 413 eta *icousi* 436) eta Bn, berriz, beti *ikhusi* aurkitu dugu. Bitxia da Clovisen A eskuizkribuan eta San Julianen ia bakarra den *ekusi* aldaerak ez duela Orotariko Euskal Hiztegiari zubererako adibide bakar bat ere.

18. Ak batzuetan badakar *galthatu* ere (53, 100, 197, 208, 214, 259, 266, 279, 332, 387, 479, 509).

19. Bk ere gehienetan *hanitz* dakar. Ik. 350, 377, 491, 570.

/ B 167 *ussurpatu*, A 179 *ususpatu* / B 210 *ussurpatu*; A 139 *arcodatu* / B 171 *accordatu* (ik. 143 / 174; 156 / 187; 170 / 201 ere); A 202 *satisfamentu* / B 228 *satisfamentu*.

Goian aipatu dugun aldaera grafikoen mugan daude, gure iritziz, *err-* / *re-* edo *s-* / *es-* motako aldaerak. Ia ziur esan liteke *spiritu* eta *rezebitu* grafia etimologikoak eragindako aldaerak direla, baina hemen aipatuko ditugu. Kasu honetan ere ez da beti eskuizkribu bat grafia “euskaldunagoaren” hautua egiten duena:

A 71 *remestiatcen* / B 110 *erremestiatcen*, A 143 *repostu* / B 184 *arrapostu*, A 221 *repostia* / B 244 *arrapostia*, A 165 *retiratu* / B 196 *erretiratu*, A 98 *spiritu* / B 135 *ezpiritu*.

A 89 *errecebitu* / B 126 *recebitu*, A 304 *erremedioricq* / B 347 *remedioriq*, A 162 *arrafusatcen* / B 193 *refusatcen*.

4.2.2.2 Irakurketa edo kopiatze hutsak

Eskuizkribuetan kopiatzerakoan egindako hutsak harrapatzea eta huts horien jatorrian zer zegoen asmatzea ez da erraza gehienetan. Onenean ere esaldi bitxi edo nahasiren bat edo gauza ulergaitzen bat badela suma dezakegu hainbatetan. Eskuarteetan ditugun eskuizkribuen moduko kasuetan, errazagoa da hutsak harrapatzea, huts egin duenaren ondoan zuzen irakurri duen kopiatzailearen aldaera baitugu. Horrelako zerbait gertatzen da hona ekarriko dugun lehenengo adibidearekin. A 182ren parean B 212 izango ez bagenu, agian ez ginatkeen jabetuko kopiatzailearen hutsarekin; bitxia irudituko zitzaigun, bai, Jesukristoren ondoan gurutziltzatutako ohoiak ez baitzuen anaia hil, baina zail egingo zitzaigun, seguruenera, *zuinek* horren lekuan *Kainek* irakurri behar dela konaturatzea. Hain zuzen ere horixe argitzen digu B 212 ahapaldiak.

A 180 Minçatcen ahal niça ouhouina
Jesus Cristy beçala?
Ez, ez, hala ere
eniten ahal bentura;

B 211 Minçatcen ahal niça ohoïn houna
Jesu Christy beçala?
Ez, ez hala ere
eniten ahal bentura.

181 etcinna niq beçain crima handiriq
ouhouin hareq cometitu,
niq beçain criminelky bere odolian
bere eskiaq trempatu.

182 Çouineq bere anaia bera baicy
etcina besteriq erho,
ene crima dun, ene crima,
harena beno ere handiagio.

212 *Kaineq* bere annaya baicy
etcina besteriq erho,
ene crima dun harena beno
milatacouaz handiagio.

Hurrengo aipatuko dugun adibidea ere antzekoa da, baina oraingoan badirudi hutsa egin duena Bko kopiatzailea izan dela:

A 342 Badia coueintariq eregecq?
Cer berry duçu ecarten?
Exay çounbaitecq duia,
amenx, *assiegnatcen*?

B 380 Badia cointariq erregueq?
Cer berry duçu ekhartent?
Exay çombaiteq dia,
amenx, *assesignatcen*?

Jarraian datozen bi adibideetan ez da erraza esaten zer zen jatorrizkoak zekarrena eta zein den testua aldatu duen kopiatzailea; oharkabeen eginak ala ohartuki eginak diren esatera ere ez gara ausartzen, baina badirudi lehenengoan Bk egin duela *lardatu* > *tratatu* aldaketa eta bigarrean,

berriz, A izan dela *hartzen* > *harritzen* egin duena:

A 373 Cokiacaq, behar ducie
orocq maradicatu,
aphouaq gerrenetan beçala
nahy çutiet *lardatu*.

A 328 Aguer ady, fripou esclia,
devriacq ezpahay *harricen*,
bay eta goure loxaz
ossoky incantatcen!

B 409 Coquiaq, behar ducie
orocq maradicatu,
aphouaq guerrenetan beçala
nahy çutiet *tratatu*.

B 367 Aguer ady, fripou esquelia,
debriacq ezpahay *hartcen*
eta goure loxaz oray
ossoquy incantatcen!

A 335 eta B 373 ahapaldietan, berriz, badirudi egindako esaldi bat dugula, eta Bko kopiatzaileak, esaera ezagutzen ez duenez, gaizki kopiatu duela:

A 335 Jokha niroq bicia
houra beita *erhouaren* gagia,
eracarry nahy ahal diala
Franciaco erreguia.

B 373 Jokha niroq bicia
houra beita *horen* gagia,
erakarry nahy ahal diala
Franciaco erreguia.

Euskaraz antzekorik aurkitu ez badugu ere, 1787-1788ko Jean-François Féraud-en *Dictionaire critique de la langue française* hiztegian “c’est la gageure d’un fou” esaera aurkitu dugu: “eroaren apustua”, beraz.²⁰

A 475 eta B 496 erkatuaz ikusten da Ako kopiatzaileak egin duela hutsa, baina, aurrekoak ja-torritzko testua irakurtzerakoan egindako hutsak badira, oraingoan badirudi irakurtzerakoan barik idazterakoan erratu dela:

A 475 Behar gutuçu laguntu, monseigneur,
çuq, othoy, hiry hartara;
behar duçu hara *gin*
erregeren batheiatcera.

B 496 Behar gutuçu laguntu, monseigneur,
çuq, othoy, hiry hartara;
behar diçuğu hara *jouan*
Clovisen batheyatcera.

A 133 eta B 165ekoak ere, izatekotan, irakurtzerakoan egindakoa baino gehiago idazte-rakoan egindako hutsa dirudi; oraingoan badirudi B erratu dela:

A 133 Cer den ounxa eta gaizkia
segurky harecq baçaқиçü;
haren spiritiaren parericq
mundu *hountan* eztuçu.

B 165 Cer den onxa eta gaisquia
segurquy hareq baçaқиçü;
haren ezpiritiaren pareriq
mundu *orotan* eztuçu.

20. Honela dio hiztegi horrek “gage” sarrerako “gager” azpisarreran: “Parier [...]. *Gager avec ou contre* quelqu’un. = On dit proverbialement, *je gage ma vie*, ou *ma tête à couper*, et quelquefois on répond: *c’est la gageure d’un fou*.”

Hurrengo adibidekoak ere idazterakoan egindako hutsa dela dirudi, baina oso zail da jakiten bietan zein erratu den, edo ohartuki testua zeinek aldatu duen. Oraingo honetan errima daramaten hitzak lekuz trukatu ditu kopiatzaile bietatik batek:

A 562 O, Ginco eguiazcoua!
Ala çuq hanitz *eguiten*
eta favory handiaq
eny mundian *emaiten!*

B 570 Oh, Ginco eguiazcoua!
Ala çuq hanitz *emaiten*
eta favory handiaq
eny mundian *eguiten!*

A 145 eta B 176 ahapaldiak aurrez aurre jarrita, ohartzen gara badela Ako ahapaldian laburtu beharrez-edo egindako zerbait Bn argiagotzat datorrena:

A 145 *Jaunacq, honky gin ciradiela,*
gerlaricq eztut nahy;
erran eçocie
Franciaco erregeriy.

B 176 *Prince harequila, jaunaq,*
guerlariq eztut nahy;
erran eçocie *hory*
Franciaco erregeriy.

Aldaera kontrajarriak dauden guztietan, baina, ez dugu irakurketa okerrik ikusi behar, hainbatetan kopiatzaileak nahita egindakoa izan baitaiteke. A 331n *Erregue edireiten da / amini bat indisposaturicq* dioen lekuan, esaterako, *ossoky indisposaturicq* dakar B 369k, baina ez dago bataren edo bestearen hutsa dela zertan pentsatu, bietako edozeinek ohartuki egindako aldaketa izan bailiteke. Gauza beretsua esan liteke A 401eko *orory / jauceraciten deitciet erchiac* eta B 429ko *orory deritciet / jauz eraciten buriaq* esaldiari buruz.

A 378n *Jupiter* dioen lekuan B 414n *Barlaman* irakurtzen dugunean ere ez da erraz jakiten nahita egindako aldaketa den ala oharkabea egindakoa; hala ere badirudi B izan dela aldatu duena. A eskuizkribuak *Jupiter* dakar 378 eta 454 ahapaldietan; Bk, berriz, *Barlaman* ezarri du lehenengoan (414) eta ez du bata ere aipatzen bigarrenean (476). Jupiterren aipamenik ez dago testuetan beste inon ere; *Barlaman*, berriz, beste lau aldiz dator An (416, 418, 435 eta 436) eta hiru aldiz Bn (441, 442 eta 452); guztietan ere Julek aipatzen du laguntza eskatzeko. Beraz, badirudi, jatorrizkoan *Jupiterri* hel egiten diola *Clovis* paganoak eta *Barlamani*, berriz, *Julek*, eta Bko kopiatzailea izan dela 414. ahapaldian oharkabea nahiz ohartuki *Barlaman* aldaketa egin duena.

CLOVIS
A 378 Othoy, favory guitçaq
oro, *Jupiter* handia,
allemanetan gagnen
eman eçagucq victoria!

CLOVIS
B 414 Othoy, favory guitçaq,
oh, *Barlaman* handia,
alemaignetan gaignen
eman içagucq victoria!

FLORINDE
A 454 Bataila balençan celariq
errege duçu gomendatu,
bay eta bere gincoua
Jupiter invocatu.

FLORINDE
B 476 Batailla balençan celariq
errege duçu gomendatu,
eta bere ginco falxier
bihotcez adressatu.

Beheko bi ahapaldietan puntuazioa ezberdin eman dugu A eta B eskuizkribuen transkripzioetan. Bren kasuan 106 eta 107. ahapaldien artean puntua ezarri dugu; An, berriz, koma ezarri dugu. Batean zein bestean *nahy bada incapable niçan* esaldi kontzesiboak bigarren zatia behar du, baina

ezberdin dator bietan, tartean egindako aldaketaren ondorioz: Bn hurrengo lerroko *halere dit acceptatcen* da perpausa osatzen duena, bestean, berriz, aurreko ahapaldiak izan behar du esaldia osatzen duena, alegia Clotildak *proposizioa azeptatzen du, nahiz eta inkapable den*.

A 67 Hitz haren pian dit, jauna,
propositionia acceptatcen,
conditioniren pian niq ere
noure buria ofritcen,

B 106 Hitz haren pian *deicut*, jauna,
proposicionia *acceptaturen*,
condicioniaren pian niq ere
noure buria offritcen.

68 nahy bada incapable niçan
halaco printce baten,
ceren bera den niçaz
satifeit edireiten.

107 Nahy bada incapable niçan
halere dit acceptatcen,
ceren bera den *nitaz*
satifet edireiten.

5. Azken hitzak

Goiko lerroetan Clovis pastoralaren bi eskuizkributako testuak erkatzen eta aldaerak erakusten saiatu gara. Garrantzitsuenak eta adierazgarrienak eman ditugu, ustez behintzat. Dena den, hasieran esan dugun bezala, Clovis pastoralak, guk aukeratu dugun azterbidetik haratago, beste modu bateko erkaketa eta azterketetarako bide ere ematen du, oso aberatsa baita eskuizkributan.

Guk aipatutako aldaera horiek guztiak argiago ikusi ahal izateko eta hizkuntzazko nahiz literaturako azterketa sakonagoak egin ahal izateko, baina, ezinbesteko iruditzen zaigu eskuizkribu hauen edizio kritiko egokiak egitea. Pastoraletan asko dira oraindik argirik ikusi ez duten eskuizkribuak. Guztira 55 izenburutik gora dira Hérellek (1928) Zuberoako pastoralen katalogoan aipatzen dituenak eta 120tik gora gaur egun liburutegi publikoetan nahiz bilduma pribatuetan gordetzen diren eskuizkribuak. Modu batera edo bestera argitaratu diren pastoral zaharren eskuizkribuetan 16 bat izenburu ezberdin dira;²¹ asko da, beraz, oraindik egiteko dagoena eta are gehiago ondoren testuak aztertu ahal izateko edizio egokiak nahi baditugu.

Aipatutako bibliografia

Féraud, J.-Fr., 1787-1787, *Dictionnaire critique de la langue française*, Marseille.

<http://www.lib.uchicago.edu/efts/ARTFL/projects/dicos/>

Hérelle, G., 1928, *Répertoire du théâtre tragique. Catalogue analytique*, Imprimerie du Courier, Baiona.

Léon, A., 1909, *Une pastorale basque. Hélène de Constantinople. Étude historique et critique*, Librairie Ancienne Honoré Champion, Paris.

Loidi Garitano, A., 1996, "Santa Catherina pastoralaren XIX. mendeko bi eskuizkribu", *ASJU* XXX-2, 497-603.

—. 2004, "Antiokiako San Julianen Pastoral (1770)", *ASJU* XXXVIII-1 (2004), 1-133.

—. 2008a, "La pastoral suletina: trabajos de investigación y ediciones" (Gasteizen 2008ko irailaren 10ean "Monumenta Linguae Vasconum" proiektua (2002-2008) sei urte ikerketan)

21. Trajeria zaharren eskuizkribuen orain arteko argitalpenen berri laburra eman genuen Loidi 2008a lanean.

izeneko mintegian irakurritako txostenaren gaztelaniazko bertsioa).

http://www.ehu.es/monumenta/pdf/mintegia2008/Loidi-La_pastoral_suletina.pdf

—, 2008b, “Clovis pastoralaren eskuizkribuak”, 2008ko urrian Euskaltzaindiak Iruñean antolatutako XVI. Biltzarrean aurkeztutako txosten argitaragabea.

Mozos, I., 2000, *Jean de Parisen trageria*. Doktore tesi argitaragabearen bertsio eguneratua.

UPV/EHUko doktore tesiaren izenburu originala: *Jean de Paris pastoralara, eskuizkribuen azterketa eta iturrien moldamoduak* (1994).

Oyharçabal, B., 1991, *La pastorale souletine. Édition critique de Charlemagne*, ASJU-ren gehigarriak, XVI, Donostia.

Saroihandy, J., 1927, *La pastorale de Roland*, Imprimerie du Courrier, Baiona.

Urkizu, P., 2007, *Teatro popular vasco. Manuscritos inéditos del siglo XVIII. Estudio y edición*, UNED, Madril.

Vinson, J., 1891, *Saint Julien d'Antioche, pastorale en langue basque publiée conformément à un manuscrit appartenant à la bibliothèque de la ville de Bordeaux*, Vve Moquet, Bordele.